

Euskal herrietan komentuz komentu

Tulebras-ko zistertarrak

La tradición monacal femenina de Euskal Herria arranca entre los benedictinos con Cluny, ya a comienzos del s. XII (S. Benito, de Estella; S. Cristóbal, de Leire), pero se afirma, sobre todo, desde mediados del mismo siglo con la presencia de las monjas cistercienses (Tulebras, 1157; Marcilla, 1181; Barria, 1200). Tulebras fue el primer Monasterio peninsular del Císter femenino, y ha perdurado hasta nuestros días.

Tulebras Nafarroako Erriberan dago, Tuterako Merindadean, Iruñetik 105 km-ra, Aragoiko mugetan. Herri txikia da, ehunen bat bizilagun dituena, eta bertako moja zistertarren inguruan sortutakoa. Mugaldekua izatean, monasterioak eta herriak, biek, bizi eta jasan behar izan dituzte erreinuen arteko mugaldeen gertatu ohi diren aldarte on eta txarrak.

Moja zistertarrak Euskal Herrian

Aurrekoren batean gogoratu genituen hemen Euskal Herriko beneditarrak (2007ko apirilean); oraingo honek han esandakoak osatuz joateko balioko digu, zistertarrak, hain zuzen, beneditarren erreforma baitira, 1108an sortua eta batez ere XII. mendean garatutakoa (San Bernardo gidari zutela, †1153). Beneditar berriak hauek berehala iritsi ziren Euskal Herrira ere, eta indar handiz Nafarroara.

Esan behar da, gainera, aurreko beneditarren bezala zistertarren ere emakumezkoek beren lekua izan zutela (eta dutela), mojentzako monasterioak eraiki eta eratu zituztenetik, Frantzia gertatu zenaren antzera Euskal Herrian ere.

Zistertarren zabalkuntza bi erataria egin izan da: Abadetxe berriak sortuz, edo Abadetxe zaharretan erreforma berria txertaturik – arau eta monasterio-sare berriak onartuta, alegia –. Euskal Herrian ere halatsu joan dira gauzak: XII. eko Fitero, La Oliva eta Irantzuz izan ziren oinarri berrien

gain jasotakoak, eta Leire, ostera, beneditarretatik Zisterrera pasatuz erreformatu zen, nahiz eta tirabira askoren ondoren lortu hori (1237-1307).

Horiek denak gizonezkoenak ziren, ordea. Aldi bertsuan emakumezko zistertarrak ere beren bidea egin zuten, berritua Nafarroan, gainerako hegoaldean ez baitzen egon zistertarren monasteriorik Erdi Aro osoan.

Zistertarrak gure artean agertu aurretik, egon zen hemen moja beneditarrik: adibidez, Leireko San Kristobal, Lisabe eta Irunberrin egon ondoren, gaur egun Altzuzan dagoen Monasterio oraindik ere beneditarra.

Emakumezkoen erreforma zistertarra indartuz joan zen mendeak zehar, XII. ean noski (Tulebras, Marcilla, Lizarra, Baiona, Barria), baina baita gero-ko zenbaitekin ere (Allotz, Lazkao). Dena den, zistertar hauetako batzuk, denboraldi batean nahiz behin-betirako Trapa-ra ere pasatu izan dira, hau da, zistertasun hertsia gogor batera (Tulebras edo Allotz, esaterako, eta Tulebras bera 1957an). Oñatiko San Lorentzo monasterioa (1906), berriz, sortzez eta gero beti izan da beneditarra, beste gabe, hiru mende lehenago Corella-ko moja beneditarrena bezala (1659).

Batez ere Nafarroan baina iraunaldi luzean hazi eta bizi izan den Euskal Herriko beneditartasunean, Tulebras-ko mojen monasterioak lekurik behinena du.



Tulebras-ko monasterioa (1157...)

Tulebrasko Etxe honek, eta bertako mojek, zerikusia hiru erreinurekin izan dute: Nafarroakoarekin, noski, baina, lehen bizialdian batik bat, baita Aragoi eta Gaztelarekin ere, izan ere hirurek izan baitzuten interesik halako monasterioa mende hartu, gobernatu eta beraren ondasunez baliatu ahal izateko.

Bestalde, Tulebras ez zen Tulebras bakarrik, beronek sortutako monasterio sarea bertatik zegoen, sortutakoen gain itzala eta agintea monasterio-ama horrena zen eta. Tulebras izan zen Penintsulako moja zistertarren lehenengo monasterioa, eta lehenetasun horren ondorioz, Tulebrasko mojek Leon, Gaztela, Aragoi eta Katalunian sortu zituzten monasterio berriak, bere familiakoak izango zituenak. Zazpi monasterio izan ziren Tulebras-eko honetatik jaiokak (horietako bat, Burgos-ko Las Huelgas, hain zuzen, Gaztelako Erregeek Zisterra bereganatze politikarako erabiliko zuena).

Sortetxea Nafarroan egonik eta beste erreinetan mendeko monasterioak zituela, egoera horrek berehala topo egin zuen Gaztelako Alfonso VIII.a erregearen asmoekin. Errege honek Las Huelgas-koari eman nahi zion lehenetasuna auzigai bihurtu zen, Tulebras bera, Erregea eta zistertarren Kapitulu Jeneralaren artean, Tulebras-en alaba ziren monasterioak ez baitzeuden prest monasterio-amarekin zituzten loturak hausteko (1187-1199).

Gaur egun, kasu gutxitan bezala, ongi eza gutzen dugu Tulebrasko monasterioaren historia, Colombàs-ek eman digun liburu aberatsaren bidez (Iruña, 1987). Tulebras, monasterio ez ezik, benetako jaurerria izan zen, eskuetan zituen lur,

zerga-eskubide eta langileekin. Izaera ekonomiko eta sozial bortitz horrek bere alde on eta txarrak izan zituen, edozein jaun edo erregerentzat erakargarria baitzen monasterioaren jaurerri hori modu batera edo bestera eskuratzea.

Errazegi uste izaten dugu, beharbada, moja eta fraide guztien biziera gure egunetan ezagutu duguna beti izan delabeti, baina ez dago gehiegi pentsatzen egon beharrik bestelakorik ere egon dela ikusteko: azken hamarkadetako begiratzea besterik ez dago. Tulebrasko kasuan, aipatutako historialariak ongi agerian utzi du monasterio hauetako aldakuntzak zein esanahitsuak izan diren.

Zortzi mende eta erdian (1157-2011), denetik ezagutu du Tulebras-ek: lehen hamarkada aldar-tetsuak, Erdi Aro zaila, familia nafar handietako abadesak, herritarren presentzia (kofradiak), inguruko herrieekin auzi luzeak, ezbehar eta miseriak, barne-gobernuko arazoak, espiritualtasun berriaren antsia, etab.

Gaur egun, monasterio hau bere eraikinetan guztiz berritua ageri zaigu, jasotako laguntzari eta mojen eskulanari esker. Hiru hamarkada luzatu da zaharberritze lan hori, betiere aldi berean monasterioko ekonomiari eutsiz, eta horretarako etxeko lantegiak indarrean zainduz, lantegi (baratza eta erlauntzak zainduz, gaseosak eta pastak ekoitziz, ehundegia eta oilategia eratuz).

Orain monasterioa irekita ere badago, ototzerako ez ezik ikusmiran datorren nornahirentzat, Museo zabalik duela eta bertan agerian Ahizpartearen historia eta monasterioko arte-lanak. 2011ko urte honetan 21 dira monasterio honetako mojak.

Joseba Intxausti